

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Udal Kultur Etxea (Basauri)****Liburutegiko Laguntzaile kategoriako lan-poltsarako deialdia**

Kultur Basauriko presidentearen 2020ko uztailaren 30eko Ebazpenaren bidez, liburutegiko laguntzaile kategoriako lan-poltsarako deialdia onartu zen.

Prozesua bideratze aldera, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Kultur Basauriren iragarki-taulan eta webgunean argitaratzen da.

Eskaerak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da, honako deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Eskaera-orriak erakunde autonomoaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira.

Basaurin, 2020ko irailaren 21ean.—Basauriko Udal Kultur Etxearen presidentea, Berta Montes Beltrán

**KULTUR BASAURIN LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILE
KATEGORIAKO LAN-POLTSA BAT OSATZEKO OINARRIAK****1. Arau orokorrak**

1.1. Deialdia egin da liburutegiko laguntzaile kategoriako lan-poltsa bat osatzeko prozedura abian jartzeko, Kultur Basauri udal erakunde autonomoaren behin-behineko langile-beharrizanari erantzuteko.

Zeregin nagusien deskribapena:

- Liburutegiko erabiltzaileei arreta ematea: eskatutako maileguak egitea, orientabideak eta informazio bibliografikoa ematea eta abar.
- Funts bibliografikoa eta, oro har, instalazioak zaintzea, eta eremua txukun mantentzea.
- Funtsak tratatzea, liburutegiak kudeatzeko programa informatikoaren bidez: berarek erregistratzea, sailkatzea, katalogatzea.
- Funtsak ordenatuta mantentzea.
- Hainbat administrazio-lan egitea. Hala nola: bazkideen alta, estatistikak egitea, materiala eskatzea...
- Liburutegirako funtsak erostea: hautatzea, liburu-dendak bisitatzea, materiala eta fakturak erkatzea eta abar.
- Egoera txarrean dagoen materiala detektatzea eta berau ordeztzeko edo kentzeko proposamena egitea.
- Aldizkako argitalpenak kudeatzea: eskuratzea, biltegitratzea, garbitzea.
- Irakurzaletasuna eta liburutegiaren erabilera sustatzeko antolatzen diren jardueretan laguntzea.
- Bilerak egitea nagusiekin eta gainerako liburutegi-laguntzaileekin.
- Oro har, lanpostuak eskatzen duen kualifikazioarekin bat datozen zeregin guztiak.

1.2. Honako deialdi honek erakunde autonomoa, administrazioa denez gero, eta parte hartzen dutenak lotzen ditu.

1.3. Ezohiko lan-poltsa honetan dauden hautagaiei indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboa eta Langile Publikoaren Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko Legegintzako 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua aplikatuko zaizkie, besteak beste.

1.4. Honako oinarri hauek arautuko dute hautagaiak hautatzeko prozesua. Lan-poltsaren funtzionamendua eta kontratua hobetzeko eta deialdiak zigortzeko kasuak, berriz, Erakunde Autonomoaren Lan-poltsak Kudeatzeko Araudian xedatutakoarekin bat etorriko dira; aldi baterako kontratazioaren bilakaeran eman daitezkeen gainerako inguruabarrak, berriz, hala badagokio, Lan-poltsen Jarraipen Batzordeari jakinarazi ahalko zaizkio, azter ditzan.

1.5. Deialdi honen oinarriak Kultur Basauriren webgunean (www.socialantzokia.eus) eta erakunde autonomoaren iragarki-taulan kontsultatu ahalko dira.

1.6. Kultur Basauri erakunde autonomoan lan egiteko osatuko den langileen lan-poltsak datu pertsonalen babesari buruzko legediak euskarri-mota horretarako aurreikusitako eskakizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu. Honako hauetan aurreikusitakoak, hain zuzen ere: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBEO) eta Europako Parlamentu eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 679/2016 Erregelamenduan.

**2. Hautagaiek bete beharreko baldintzak**

2.1. Lan-poltsan onartuak izateko, hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 57. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.
- b) Hamasei urte beteta izatea; eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- c) Lana betetzeko beharrezko gaitasun funtzionala izatea: hautagaiek deialdiaren xede den lanpostuaren zereginak eta betebeharrak betetzeko moduko gaitasun psikofisikoa izan beharko dute.
- d) Diziplina-espeditate batez edozein herri-administrazio edo autonomia erkidego-tako organo konstituzional edo estatutarioren zerbitzutik bereizita ez egotea, ez eta ebazpen judizial bitartez enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna erabatekoa edo berezia ez izatea, lan-kontratudun langileen kasuan, bereziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeko.
- e) Herri-administrazioetan lanean dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoien bat ez egotea.
- f) Honako titulu hauetako bat izatea: Batxilergoa edo erdi-mailako Lanbide Heziketa edo LHko teknikaria, goi-mailako Batxilergoa, LH2 edo horren baliokidea, bai eta 2. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea ere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko Dekretua aldatzen duen uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.2. Arestian aipatu diren baldintza guztiak eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen den unean eduki beharko dira, eta mantendu deialdi honi dagokion aldi bateko lan-kontratua egin arte.

3. Eskaera orriak aurkeztea

3.1. Hamabost (15) egun natural egongo dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaera-orriak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunean zenbatzen hasita. Eskaera-orriak eranskinean dauden eredu ofizial eta normalizatuari jarraituz aurkeztuko dira Kultur Basauri erakunde autonomoan (Kale Nagusia, 2, Basauri-Bizkaia). Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

3.2. Eskaera-orriarekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- NANaren kopia.
- Tituluaren kopia edo berau eskuratzeko eskubideak ordainduta daudela egiaztatzen duen agiria.
- Adierazitako merezimenduen zerrenda.
- Herri administrazioetan aurretiaz emandako zerbitzuen ziurtagiriaren kopia. Kultur Basauri erakunde autonomoan kontratu pean lan egin izanagatik datuak erakunde horretan dituzten hautagaiek eskaera-orrian hori adieraziko dute, dagokien ziurtagiria ofizioz eman ahal izateko.
- Sektore pribatuan lan egin izandako denborari dagozkion merezimenduak egiaztatzen dituen agiriaren kopia.
- Hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiriaren kopia, baldin eta datu hori Euskara Tituluaren eta ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan egiaztatuta ez badago. Euskaraz egingandako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.



3.3. Merezimenduen zerrendan adierazitakoak baino ez dira kontuan hartuko. Epaimahai Kalifikatzaileak ez ditu aintzat hartuko adierazi bai, baina egiaztatu ez diren merezimenduak. Eskaera-orriarekin batera oinarrietan eskatzen den titulua edo adierazi diren merezimenduen ziurtagiriak aurkezten ez badira, hizkuntza-eskakizunarena barne, ezin izango dira erreklamazio-epean aurkeztu, ez bada hautagaiari berari ezin egotzi dakizkion arrazoiak tarteko direla —behar bezala arrazoituak eta Epaimahai Kalifikatzaileak ontzat emanak—.

Tituluen jatorrizkoak, NANA/AIZ eta merezimenduen egiaztagiriak Kultur Basauriko administrazioan aurkeztu beharko dira nahitaez, eman daitekeen lan-kontratazioaren lehen deialdiari erantzuteko. Horiek ez aurkezteak edo agiri faltsuak aurkezteak, horrela konfiguratutako lan-poltsan sartzeko eskubidea galtzea ekarriko du, eta hori, gainera, dokumenturen bat faltsutzean hautagaiak bere buruari sortu ahal dizkion legezko erantzukizunen kalterik gabe izango da.

4. Epaimahai kalifikatzailea

4.1. Epaimahai Kalifikatzailearen kideen izendapena erakunde autonomoko presidentearen erabakiaren bidez zehaztuko da. Honako hauek osatuko dute Epaimahaia:

- Epaimahaiburu bat (1).
- Hiru (3) epaimahaikide.
- Idazkari bat (1), hitz egiteko eskubidearekin baina boto-eskubiderik gabe.

Epaimahaia izendatuko da kideen inpartzialtasuna eta profesionaltasuna aintzat hartuta, eta, bertan, emakume-gizonen arteko parekotasuna gordeko da. Boto-eskubidea duten kideen erdiek, gutxienez, izan beharko dute sartzeko eskatzen den ezagutza-arloari dagoen titulazioa, eta kide guztiek, berriz, maila akademiko berbera edo altuagokoa.

4.2. Epaimahai Kalifikatzailea ezin izango da osatu eta ezin izango du jardun baldin eta gutxienez epaimahaiburua eta idazkaria —edo, hala badagokio, haien ordezkioak— eta kideen erdiek ez badaude. Erabakiak Epaimahaiaren kideen gehiengoaren botoen bidez hartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, presidentearen kalitatezko botoak ebatziko du.

Indarreko lege-araudian edo oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztirako, Epaimahaiak eskumena izango du deialdi hau ezartzetik eratorritako gai guztiak aplikatu eta interpretatzeko, bai eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ere, hautaketa-prozesua behar bezala garatu dadin.

4.3. Interesdunek epaimahaiak hartzen dituen erabakiak aurkaratu ahal izango dituzte, administrazio-prozedura erkidearen araudian zehaztutako moduan eta epeetan.

5. Baloratzeko merezimenduen egitura eta sailkapena

Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den data izango da adierazitako merezimenduak aintzat hartzeko erreferentziazat hartuko dena.

Hautaketa-prozesua, bestalde, merezimenduen balorazio-fase bakarrean egituratuko da, honako baremo honen arabera:

A) Lan esperientzia

Atal honetan, gehienez ere 15 puntu emango dira.

A.1. Deialdi honetan eskatzen den lan-kategorian administrazioan edo/eta erakunde publikoetan egindako lana baloratuko da. 0,25 puntu emango dira lan egindako hilabete oso bakoitzeko, lanaldi osoan. Ez dira hilabeteko aldia baino zati txikiagoak zenbatuko.

Administrazio edo erakunde publikoetan emandako zerbitzuak administrazio edo erakunde horien ziurtagirien bidez egiaztatuko dira. Emandako zerbitzuen ziurtagirietan, urteetan adierazitakoa hilabeteetan zenbatuko da (hamabi hilabete urteko), eta egunetan adierazitakoa, berriz, hilabeteetan (hogeita hamar egun hileko). Ez dira baloratuko hilabete baino gutxiagoko zatiak.



Emandako zerbitzuen ziurtagiriek kategoria, espezialitatea eta lan egindako aldiak jaso beharko dituzte.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindako denboratzat hartuko dira.

B) *Titulazio akademikoak eta prestakuntza*

Atal honetan, gehienez 5 puntu emango dira.

B.1. Gehienez 2,5 puntu emango dira:

– Lizentziatura edo diplomatura: 0,50 puntu.

– Graduondoko ikasketak: 1 puntu.

– Bibliotekonomia eta dokumentazioko diplomatura: 2 puntu.

B.2. Gehienez ere 2 puntu emango dira HAEEk, INAPEk eta prestakuntza-zentro ofizialek egindako eta antolatutako prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroetara joan izanagatik, bai eta edozein administrazio publikok sinatutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera emandako eta egiaztatutako ikastaroetara joan izanagatik ere, bete beharreko lanpostuaren eginkizunarekin lotura zuzena duten gaietan. Bertaratze-ziurtagiria zentro horiek egina izan behar da, eta ikastaroen iraupena nahitaez adierazi behar da. 40 irakastordu edo gehiagoko ikastaro bakoitza honelaxe baloratuko da:

– 40 eta 80 ordu bitarteko ikastaroak: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.

– 80 ordutik gorako ikastaroak: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko.

B.3. Hizkuntzak. Europar Batasuneko hizkuntza bat edo gehiago jakiteagatik, 0,50 puntu emango dira gehienez, honela banatuta:

– 0,20 puntu, B2 mailako hizkuntzak jakiteagatik, ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuta.

– 0,30 puntu, C1 mailako hizkuntzak jakiteagatik, ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuta.

– 0,40 puntu, C2 mailako hizkuntzak jakiteagatik, ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuta.

C) *Euskara*

Atal honetan, gehienez, 3 puntu emango dira.

3. HE edo hortik gorakoa egiaztatzea 3 punturekin baloratuko da.

6. Hautagaien lan-poltsak egiteko era

6.1. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaituta, eta Epaimahai Kalifikatzaileak hautagaiak egiaztatutako merituak baloratu ondoren, onartutako eta ez onartutako hautagaien behin-behineko zerrendak onetsiko dira, ez onartutako kasuan baztertu izanaren arrazoia ere adierazita. Zerrenda horretan, onartutako hautagai bakoitzak lortutako puntuak jasoko dira, eta erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratzeko agindua emango da.

Interesdunek 10 egun natural izango dituzte, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik, bertan jasotako datuak zuzendu edo haien inguruko alegazioak aurkezteko. Erreklamazioetan ezin izango da eskatu eskaera-orrian adierazitako merezimenduz kanpoko beste batzuk azaltzeko edo egiaztatzeko. Epaimahai Kalifikatzaileak ez du kontuan hartuko zuzenketak egiteko epearen barruan aurkeztuko eta merezimenduak hantitzea ekar dezakeen beste inolako agiririk.

Epe hori igarota, Epaimahai Kalifikatzaileak, interesdunek aurkeztutako alegazioei erantzun eta gero, erakunde autonomoaren presidenteari aldi baterako langileak kontratatzeke lan-poltsa (hautagai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera antolatuta) behin betiko onesteko ebazpen-proposamena bidaliko dio.

6.2. Azken puntuazioa hautaketa-prozesu osoan deialdi honen bosgarren oinarrian ezarritako baremoaren arabera lortutako puntu guztien batuketa izango da. Bi hautagai edo gehiagoren artean berdinketarik bada, bosgarren oinarrian adierazitako merezimenduetako bakoitzean lortutako puntuaziorik handienari begiratuta erabakiko da, aipatutako oinarrian azaltzen den hurrenkeraren arabera. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, hautagaiak parte hartzeko hurrenkerari begiratuko zaio, lehen abizenaren lehenengo letra



«Q» dutenekin hasita —izan ere, hala zehaztu du Funtzio Publikoaren Estatuko Idazkari-tzaren 2019ko martxoaren 15eko Ebazpenak («Estatuko Aldizkari Ofiziala» 66 zenbakia); ebazpen horren bidez, argitara ematen da Estatuko Administrazioako langileen artean sar-tzeko araubide orokorrak aipatzen duen zozketaren emaitza—. Hala ere, berdinketak bere horretan badirau, hautagai nagusienaren adinari erreparatuta erabakiko da.

6.3. Prozesu horretatik ondorioztatutako zerrenda erakunde autonomoaren iragar-ki-taulan eta webgunean argitaratuko da, eta indarrean egongo da berau ordeztzen duen beste deialdi bat argitaratu arte edo, nolana ere, LEPrako deialdia argitaratu arte.